

udal aldizkaria 138. zenbakia
2011ko apirila



ale honetan zer?

- 2 Telefono interesgarriak
- 3 Udal zerbitzua eta erabakiak
- 4 Eskaerei erantzunez
- 5 Erreportajea
- 12 Motxean
- 14 Agenda
- 16 Ontzi marroia
- 16 Botika txandak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 44 64	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulatorioa	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Oharrak



Udalbatzak Urola Erdiko Mankomunitatearekin zaborraren garraioa eta bilketaren inguruko lankidetzaren hitzarmena eta Mankomunitatearen estatutuen aldaketa adostu zituen, EAJ eta EAren aldeko bozkekin, Aralar abstenitu egin zen eta hautetsi independentistak aurka agertu ziren. Modu honetan, azken urteetan Udalak izan duen kompetentzia Mankomunitateak eramango du berriro.

Bailarako zazpi udalerriek (Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Errezil, Aizarnazabal, Bidegoian eta Beizama) hiru ordezkari izango dituzte, baina botoa ponderatua izango da biztanleriaren arabera. "Gehiengo bikoitza sistema erabiliko da, honela, 7 udaletik 4rek ados egon beharko dute erabakiak hartzeko, nahiz eta hauek gehiengoa ez izan", adierazi zuen Julian Eizmendi alkateak.

Hitzarmenean agertzen diren printzipio nagusiak bi dira; batetik, kutsatzen duenak ordaindu egingo du eta bestetik, Udal bakoitzari bere bilketa sistemaren kostuak inputatuko zaizkio.

Bestalde, Lapatx zabortegia ixten denetik klausurara arte, 30 urte igarotzea aurreikusten da eta Lapatxek urtean 160.000 euro inguru eman beharko dizkio Azpeitiko Udalarri zabortegia bere lurretan egoteagatik.

Azkenik, zabor bilketaren kompetentzia Mankomunitatera igarotzen denez, Udalak dituen hiru langile Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatera pasatuko dira.



azpeitiak Sanagustin kultur gunearen kudeaketari buruzko deialdia atera zuen, azken Udalbatzak deialdiko arauak onartu eta gero, eta dagoeneko jaso dira proposamen guztiak. Udalak gehiengo osoz onartu zuen deialdia ateratzea: izan ere, hautetsi

independentistek, EAK eta Aralarrek alde bozkatu zuten eta EAJ aurka agertu zen. Arauen arabera, batetik, Sanagustinek kultur eta ostalaritza zerbitzuak izango ditu, eta bestetik, Udaletik kanpoko gestioa izango du.

Udal erabakiak

Martxoaren 3ko Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak ondorengo hauek izan ziren:

1.-2011ko otsailaren 3an egindako bilkuraren akta onartzea.

2.- Hiri Izaerako Zabor eta Hondakinak biltzeko, garraiatzeko, tratatzeko eta desegiteko zerbitzua ematen duen Urola Erdiko Mankomunitatearen Estatutuen aldaketa onartzea.

3.- Azpeitiko udala eta Urola Erdiko Mankomunitatearen arteko Lankidetzaren Hitzarmena onartzea, Hiri Hondakinaren bilketa eta garraioari buruzko zerbitzuen kudeaketarako:

4.- Ostalaritza eta Aisialdi jarduerak dituzten establezimenduak jartzea arautzen duen udal-agintarauaren aldaketa: hasierako onarpena.

5.- Azpeitiko "SAN AGUSTIN KULTUR-GUNEA" kultur jardueretarako etxearen kudeaketa eta ustiapenerako kontratazioa, lehiaketa irekiaren bidez.

6.- Kilometroak 2011 festaren antolaketan Udalaren parte hartze eskara.

7.- Alkatetzak 2010eko uztaila, abuztua eta irailean emandako ebazpenen berri ematea.

Mozioak:

8.- Martxoaren 8an egingo den emakumeen nazioarteko eguna: Adierazpen Institutuzionala.

9.- Iñaki Errazkin Vitoria aurkeztu duen mozioa: "Guardia Zibilen presentzia Azpeitian"

10.- Galdera eta erreguak.

Eskaerei erantzunez

Irakokizuna

Jarri dezakeue Azpeiti eta Azkoiti herri etan, bizikletak? garraiatzeko modu egoki bat dela iruditzen zait, bi herrien artean distantzia txikia baitago eta kotxea gutxiago erabiltzeko modu bikain bat izan baitaiteke hau. Azpeitian bizikleta hartu eta Azkoitiraino heltzeko aukera ona izango zen. Adibidez Zumaiako herrian aukera honetaz gozatzen dute eta bastanteko arrakasta duela entzun dut. Beraz iruditzen zait Azpeitia eta Azkoitia artean oraindik eta probetxu gehiago aterako geniola.

Elena Ibañez

Erantzuna

Gero eta gehiago hedatzen ari den zer-bitzua da, hala ere, Azpeitiko bidegorri sarea osatzen ari gara oraindik eta amaitutakoan, iritsiko den zerbait da.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Tabakoaren lege berri honekin pentsatu al da Gizarte Zerbitzu sailetik erretzeari uzteko terapiaren bat antolatzea? Batek baino gehiago eskertuko zuen.

Erretzaile baten andrea

Erantzuna

Orain urte batzuk egin genuen, baina asmoa bada eta aurrean antolatuko dugu.

Gizarte Zebitzuak saila.

Irakokizuna

Nire nahia da Garmendin dagoen eskonbreraren jarduera amaitzea. Futbol zelai ondoko eskonbrera urteetan ari da lanean, horrek inguruko bizilagunei eragiten dien eragozpenekin; zikintasuna, estetika, kutsadura akustikoa... Era berean, Udalak baztertuta duen auzoa da, izan ere, espaloak apurtuta daude, fundizioa bere kutsadura jardueran jarraitzen du eta goitentsioko dorreak etxebizitzaren ondoan kokatzen dira. Azken hauek lurperatzeko eskaera ere ez dio luzatu fundizioari. Hau guztiagatik, eskatutakoa kontutan hartzea nahiko nuke, nahiz eta ez nintzen harrituko zein auzoz hitz egiten ari naizen erantzungo bazidaten... Agur bat. (Erredakzioan itzultita)

Antonio Fernández

Erantzuna

Oso ondo dagigu zein auzoz ari zaren, baita ere, zenbat espalo eta gune berri ditugun auzo horretan azken aldian. Eskonbrerari dagokionez, herrian egin diren obra desberdinak zirela eta, beste aukerarik ez genuen eskonbrera hori erabiltzerik baino. Txukuntzen hasita gaude, ordea, ez gaude ahaztuta. Elektrizitate dorreak, berriz, Fundizioa joaten denean, dorreak ere joango dira.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Azpeitian hainbeste eskalatzaile egonda, boulder on bat hain gogoko dugun kirola egiteko. Jende berria hasi eta kirol hau egiteko kiroldegian leku ugari dago, hutsa eta alperrik. Eta eskaladan dabilen jendearekin hitz eginda merke, OSO MERKE, egiteko modua, baita Patronatuan beste 70 lagun sartuko lirateke beraz horrekin amortizatuta dago.

Iñaki Aranaga

Erantzuna

Gai hori kontuan hartu da, eta aztertuko da.

Kirol saila

Irakokizuna

Hirugarren adinekoei zuzenduta, ariketa fisikoa egiteko makinak jarriko nituzke herriko parkeetan, adibidez, Loiolako berdeguneetan. (Erredakzioan itzultita)

Erantzuna

Asmoa badago, mahai gainean dago. Herri-guneak (Zelai Luze, etab.) oso egokiak iruditzen zaizkigu eta jarriko dira.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Plastikoa birziklatzeko erabiltzen diren ontzi horien sarrerak edo zaborrak botatzeko zuloak handiagoak egitea eskertuko nuke. (Erredakzioan itzultita)

Azpeitiar bat

Erantzuna

Hornitzailearekin hitz eginda dago hemendik aurrera jarriko diren otziek zulo handiagoa izango dute.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Jakina da nola, Loiolako Santutegiko Liburutegi eta Histori-Artxibotik eraman dituzten hainbat liburu, eta batik bat balio handiko inkunablenak, Deustora. Geroztik izan dira gutxi batzuk ahotso altxatu dutenak artxiboen zesio honen aurrean. Zer dio honi buruz gure Udalak? Zerbait egiteko asmorik ba al du Azpeitiko Udalak berriro, eta lehenbailehen, hain ondare aberatsa itzultzeko Loiolako santutegira, eta dagokion bezala ikertzaile eta jendearentzat kontsultagarri egon daitezen? Zer etorkizun itxaron dezake herri batek bere ondare eta historia gorde eta babesten ez badu? Nahiz eta urteetan gertu izan dugun altxor hori, behar bada askok ez dute jakingo liburutegi horren balioa nolakoa den: liburutegian hiru arlo bereizten dira, Antzinako liburuena, Inazoren liburutegia eta Euskal Kulturarena, guztira 150.000 liburu biltzen dituelarik. Zaharrenak aipatzearren esan, XVtik XVIII. Gizaldira arteko antzinako liburu artean 15.000 liburu inguruan zituela liburutegiko fondoak, horietatik 37 inkunablenak.

J. Agirre

Erantzuna

Loiolako Santutegiko Liburutegi eta Histori-Artxiboak betebeharreko araudia du kontserbazio aldetik (klimatizazio sistema tenperatura eta kontrolatzeko), errehabilitazioagatik (liburuen egoera aztertu eta neurriak hartu) eta segurtasun aldetik (suteak, lapurretak...) eta Deustuko liburutegian askoz hobeto betetzen dira. Deustuko liburutegian (50 bat pertsonen kudeatzen dute), unitate berezi bat osatuko da Loiolako liburuentzat, beraz, obra ez da dispersatuko eta difusiorako aukerak erabat biderkatuko dira. Bestalde, kolezioa digitalizatzearen dira eta horrek herritarrei benetako eskuratzeko aukera emango dio, originalen akzesoa oso kontrolatua izaten baita. Udalak aspektu tekniko horien aurrean ez du ezer egiterik, liburutegiko arduradunek horrela erabaki badute zerbait esan nahiko du.

Ana Mendizabal. Zinegotzia.

Hobekuntzak non-nahi

Herrari onura ugari ekarriko dizkieten proiektuak egingo dira Hirigintza, Gizarte Zerbitzuak eta Ingurumena alorretan

hirigintza

Urrestilla uholdeetatik babestuz



eusko jaurlaritzako Uraren Euskal Agentziak lehiaketara atera du Ibai-Eder ibaia uholdetatik babesteko eta Urrestillako saneamenduari buruzko proiektua. Modu honetan, azken urteetan egin nahi zen proiektua gauatzeko bidea zabaldu da.

Urrestillan egin beharreko lanak bi zatitan banatuko dira; alde batetik, auzoa uholdetatik babesteko asmoz, ibaia zabaldu egingo da eta beste aldetik, berriz, ur zikin desberdinak banatuko dituen sarea osatuko da.

1.- Uholdetatik babestea.

Urrestilla uholdeak jasateko arrisku handia du eta horretarako, ibaiaren zabale-

ra bikoiztu egingo da, gutxi gorabehera. Gainera, bi zubi bota egingo dira, haue-
tatik bat berriz egingo da, Altunatik Txorietxera doana eta bestetik, pasarela berri bat eraikiko da Txorietxe eta Urrestillako plaza txikia lotuko dituen.

2.- Saneamendua.

Urrestillako ur zikinak gaur egun ez dira jasotzen eta orain egingo diren lan hauei esker, ur zikinak jaso, Azpeitiak Landetan duen sistemarekin konektatu eta depuradorara eramango dira.

Proiektuak 5.060.939,31 euroko aurrekontua izango du eta lanak 15 hilabeteko epean burutu beharko dira. Proiektuak gauatzeko asmoa orain 8

urte hasi zen eta Julian Eizmendi alkateak adierazi duenez, “behin eta berriz eskatu izan dugu proiektua gauzatzea eta zorionekoa da jakitea azkenean egingo dela. Aurten hasiko dira lanak eta beraz, 2012an bukatuko dira”.

“Urrestillan egin beharreko lan hauek aurten hasiko dira eta beraz, 2012an bukatuko dira”

Udalak proiektua eta lur sailen gestioa egin du eta lanek irauten duten bitartean, eragiten dien enpresekin koordinazioa bermatuko du, hauei ahalik eta eragozpen gutxiena sortzeko”, agertu du.



Azpeitia eta Azkoitia arteko saihasbidearen trazatu proiektua



Eneko Goia diputatua Udal ordezkariekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Azpeitia eta Azkoitia artean egingo den saihasbidearen trazatu proposamena aurkeztu zuen martxoaren 3an Azpeitiko eta Azkoitiko Udal ordezkariekin batera. Bide Azpiegituretako Saileko diputatu den Eneko Goiak adierazi duenez, “lau kilometroko errepide honi esker, Azpeitia eta Azkoitia arteko lotura errotik hobetuko da eta, bide segurtasuna gehitzeaz gain, trafikoa arinagoa izango da egunean 16.000 ibilgailu inguru hartzen dituen gunen horretan”.

Izan ere, Julian Eizmendi Azpeitiko alkateak agertu duen bezala, “proiektu honen urratsak orain 30 urte inguru eman baziren ere, aurrerapauso handi bat dugu, Azpeitia eta Azkoitia arteko errepidea Gipuzkoako puntu beltzenetakoa baita”.



Aldundiak egindako trazatuaren arabera, zazpi tunel eta lau zubibide egingo dira, bi lerroko errepide horrek zeharkatuko duen ingurunean gaineko inpaktua gutxitzeko. Saihesbidea egiteko, 66 milioi inguru inbertitu beharko direla aurreikusten dute arduradunek.

Azpeitiko saihesbidearen (GI-631) datuak:

Luzera: 4 kilometro

Udalerrriak: Azpeitia eta Azkoitia

Aurrekontua: 66 milioi euro

GI-631 errepidearen trafikoa: 16.000 ibilgailu egunean

Egitura nagusiak:

Urolako zubibidea (100 metro)

Txalintxoko tunela (780 metro)

Mandiolatzako zubibidea (80 metro)

Erletegiko tunela (380 metro)

Sistiagako zubibidea (190 metro)

Bikoitz Etxeko tunela (60 metro)

Telleriako tunela (60 metro)

Sanjuandegiko tunela (60 metro)

Arria Gainekeko tunela (320 metro)

Zabaletxeko zubibidea (50 metro)

Zubibideak: 4 (guztira 420 metro)

Tunelak: 7 (guztira 1.720 metro)

“Saihesbidearen proiektuak ibilbide konplikatu du. Proposamen bat publikatu genuen baina alegazio eta kexa ugari izan zituen eta soluzio bila aritu gara. Proposamen honek hobekuntza ugari dituela iruditzen zaigu, herri mailako kezkei erantzuna

emanez. Legealdia amaitu aurretik, trazatuaren proiektuaren idazketa lehiaketara aurkeztea espero dugu”, esan du Goiak.

“Proposamen honek hobekuntza ugari dituela iruditzen zaigu, herri mailako kezkei erantzuna emanez”

Errepide berriaren trazatu proposamena egin dagoenez, orain proposamen horren garapen teknikoa egin behar da trazatu proiektuaren idazketaren bidez, enkante eta lehaketa publikoaren nahitaezko prozesua bete ondoren. Jarraian, jendaurreko erakusketaren fasea amaitzen denean, eraikuntza proiektua egin beharko da, obra bera enkantera atera eta ondoren egin ahal izateko.

Hamarreko igerilekuaren bila



estalitako igerilekua berriztatzeko proiektuaren bigarren faseko lanak hasi dira dagoeneko. Guztira, obrak 680.000 euroko aurrekontua du; Udalak erdia ordainduko du, hau da 340.000 euro, Gipuzkoako Foru Aldundiak 250.000 euro emango ditu eta Eusko Jaurlaritzako Energiaren Euskal Erakundeak gainerako 90.000 euroak. Laguntza gauzatzeko hitzarmena Iñaki Galdos Kirol diputatuak eta Julian Eizmendi alkateak sinatu zuten martxoaren 23an.

“Ongizatean sinesten dugulako ari gara ahaleginak egiten kirol sailean. Igerilekua zaharkituta gelditu da, ia 30 urte baditu, eta berrikuntzak egin beharrean aurkitzen da. Gainera, erabilera maila handia du eta eskaera asko jaso dira”, agertu du Eizmendik.

Alkatea pozik agertu da jasotako diru laguntzarekin, izan ere, krisi garaia iritsi

direnez, “ezinbestekotzat” jotzen da horrelako laguntza. Lanek, Udal talde politiko guztien babesa dutela ere azpimarratu zuen.

“Igerilekuak, beharraz gain, erabilpen handia du eta Udalarekin konpromisoa hartu genuen”

Galdos diputatuak, berriz, albiste ontzat hartu du Azpeitiko kiroldegia berriztatze lanena: “Krisiarekin diru gutxiago izan dugu, baina hala ere, kirol azpiegiturei aurre egiteko aukera izan dugu. Azpeitiko kasuan gainera, beharraz gain, erabilpen handia du igerilekuak eta Azpeitiko Udalarekin konpromisoa hartu genuen eta orain gauzatzera doa”, gaineratu du.

Udalak egiten dituen aurreikuspenen arabera, estalitako igerilekuaren berriztapenaren lanak hurrengo ekaina erdirako amaituta egotea da, hau da, udako denboraldiaren hasierarako. Egin beharreko lanen artean, kubeta edo ontzia neurritz txikitzea, inguruaren egokitzapena, klimatizazio eta ur arazketa sistemen berriztapena eta sabai eta kristalen aldaketa aurkitzen dira.

Barruko instalazioen lanek iraun bitartean, ordea, kanpoko igerileku estalia erabiltzeko aukera izango dute herritarrek, horregatik, Udal ordezkariak “pazientzia eta ulermena” eskatu nahi dute eta lan guztiak amaitutakoan, hamar kale erabilgarri izango direla gogoratu nahi dute: “Barruko igerilekuko sei kaleak eta kanpoan estali den zatiko, beste lau kale”.

— gizarte zerbitzuak —

Unitate psikogeriatrikoa ireki da San Martin egoitzan



Aldundiko, Kutxako eta Udal ordezkariak San Martinen.

Gizarte gaietarako foru diputatua den Maite Etxanizek, Julian Eizmendi Azpeitiko alkateak eta Kutxako Gizarte Ekintzako ordezkaria Iñaki Almandozek San Martin egoitzako laugarren solairuan egokitu den unitate

psikogeriatriko berria ireki zuten martxoaren 24ean.

Arduradunek adierazi zutenez, gune berriak 16 plaza izango ditu, unitate psikogeriatriko bat osatuko da eta

plazak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontzertatutakoak izango dira: “Udal talde guztiok helburua garbi genuen eta zorionez, gaur gauzatu egiten da. Lanek 543.699 euroko aurrekontua izan dute, Udalak 300.000 jarri ditu eta Kutxak 243.699 euro”, agertu zuen alkateak.

“16 plaza dituen unitate psikogeriatriko berria zabaldu da San Martin zaharren egoitzan”

Etxanizek aurreratu zuenez, egoitzan hutsik geratuko diren 7 plazekin “arnas gunea” egingo da, “etxean dauden adinekoak hilabete igaro dezaten eta horrela, familiak atsedena har dezan”.

Katering zerbitzua eskaintzen zaie 65 urtetik gorakoei



herriarrek euren etxeetan ahalik eta egoera eta baldintza hobereenetan egotea da Azpeitiko Udalaren asmoa eta horregatik, katering zerbitzu berria jarri du abian 65 urtetik gorakoentzat eta dependentzia soziala dutenentzat. “Adinekoei eta dependentzia dutenei askotan, egoera desberdinak bitarteko,

kostatu egiten zaie jatorduak egoki prestatzea, eta horrek ondorioak izaten ditu eurengan. Katering zerbitzuak pertsona horien bizikaltatea mantentzeko eta hobetzeko aukera ematen du”, agertu du Gizarte Zerbitzuetako teknikari den Edurne Zubiak.

ZERBITZUAREN ABANTAILAK

- Dieta osasuntsua eta orekatua egitearen ziurtasuna, aldizka elikagaiei egiten zaizkien kontrol batzuen bitartez.

- Plater eta dieta espezifikoak egiten dira.

- Sukaldean istripuak izateko arriskua murrizten da.

- Denbora libre gehiago, benetan gustuko dutena egiteko.

NORENTZAT?

65 urtetik gora edota dependentzia soziala duten pertsonentzat.

ZER?

Bazkaria 4 euro (2 plater eta postrea)
Afaria 3,5 euro (2 plater eta postrea)

IZENA NON?

Sutondo enpresako 943 34 42 90 eta 617 30 35 58 telefono zenbakietan.

__ingurumena__

Komunikazioaren arazoari aurre egiten



Arantza Tapia diputatua Urola Erdia bailarako alkateekin.

Gutxi falta da azken urteotan Azpeitiko herritarrek askotan eskatu duten hobekuntza egi bihurtzeko; Urola Erdia bailarako garraio publikoarena, hain zuzen ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak eskualdea gainontzeko udalerriekin eta hiriekin lotzeko garraio publikoaren zerbitzua ezartzeko proiektua onartu du eta lizitazio publikora aterako du.

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatu den Arantza Tapiak aurreratu duenez, “zerbitzuaren emakida lehiaketara aterako da laster, eta asmoa, proiektua enpresa bakar batek hartzea da. Egun, bi dira zerbitzu hori ematen duten konpainiak, La Guipuzcoana eta Euskotren.

Hobekuntza hauek 2011ko azken lauhilekoan jarriko dira abian eta 10 urterako kontzesioa izango da”.

Tapiak adierazi duenez, udalerritikietan eskaintza igozteak eta herrigune handiagoei zerbitzu eskaintza egokia nahi da, “eta horretarako funtsezkoa izango da gainerako lineekiko eta konexioekiko koordinazioa”, gaineratu du. Gainera, helburu nagusi bezala, ibilbideak eta maiztasunak gehitzea da, horrela, autobusak lehiakor bihurtuz auto partikularrekiko. Era berean, gaueko eta jai egunetako autobusen ordutegia gehitzea aurreikusten da.

Julian Eizmendi alkateak, berriz, bailara pauso garrantzitsua ematen

ari dela nabarmendu nahi izan du: “Hobekuntzak nahi baino beranduago datoz, baina urrats garrantzitsu baten aurrean gaude. Orain hobekuntza hauek ezarriko dira, baina garbi dugu aurrerantzean ere hobetzen joan beharko dugula. Era berean, hiritargoari ere tokatzen zaio pausoak ematea eta garraio publikoa erabiltzea. Ohiturak aldatu behar dira. Jasangarritasunaren aldeko apustua egin behar dugu”.

“Aurkeztutako hobekuntza guzti hauek 2011 urteko azken lauhilekoan jarriko dira abian”



ZERBITZU BERRIAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

- Azkoitik Donostiarako korrespondentzia zuzena hobetzen da: 19 zerbitzu egunero astelehenetik ostiralera (orain 12 dira), 10 larunbatetan (gaur egun 6 dira) eta 6 igandetan (orain 2).
- Zumaia-Zumarraga linea eta Renfeko geltokiko lotura mantentzea dira, Gasteizko zerbitzua eta Zumarragako ospitalekoa hartzea ahalbidetzeko. Horrela, gaur egun 10 zerbitzuetatik, astelehenetik ostiralera 13 izatera eta larunbat, igande eta jai egunetan 9 izatera igozko dira.
- Azkotia-Azpeitia-Zestoa lotura trinkotu egingo da astelehenetik ostiralera, egunero 32 zerbitzu eta larunbat, igande eta jai egunetan 11 zerbitzu eskainiz.
- Gaueko zerbitzuak indartu egingo dira. Larunbatetan, Azkoitia eta Zumaia artean, gaueko 4 zerbitzu jartzen dira, Zumaia-Donostia zerbitzuarekin koordinatuta.
- Neguan, ostiraletan, Zumaia-Azkoitia eta Zumaia-Donostia zerbitzuak 01:00etaraino luzatuko dira.
- Ahal den neurrian, Zumarragara iristeko orduak Debagoienarekin lotzen duten Transportes Pesa SA enpresako ordutegiekin koordinatuko dira.
- Debarrenarekiko lotura, Azpeitia eta Ermua artean, hobetu egiten da 7 zerbitzuekin astelehenetik ostiralera eta 6ekin larunbat eta jai egunetan. Gainera, Azpeitia eta Eibar artean larunbat gaueko hiru autobus ezarriko dira.
- Lehentasuna emango zaio Eibarren Bizkaibusekin koordinatzeari, Bilboko lotura ahalbidetzeko.

Beizama eta Errezilera joateko garraioa trinkotuko da mikrobus eta taxibus zerbitzuekin

Hobekuntza hauez gain, Tapia diputatuak Azpeitia-Beizama eta Azpeitia-Errezil konexioek ere errefortzua izango dutela aurreratu du. Horretarako, bi zerbitzu mota aurreikusi ditu Aldundiak: mikrobusak eta taxibusak. "Taxibus zerbitzuak egutegi eta ordutegi jakinak izango ditu, baina erabiltzaileek gutxienez egun bateko aurrerapenarekin eskatu beharko dute, eta Lurraldebus-en txartela erabili beharko dute ordaintzeko. Zerbitzua taxiek eman arren, prezioa autobus txartelarena izango da", esan du Tapiak.

Hezkuntza Sailarekin hitzarmen berri bat adostear daude, eta bi zerbitzu gehiago jarriko dira publiko guztia zuzenduta. Azpeitia eta Beizama artean.

Garraio publikoaren hobekuntzak eta zehaztasunak ezagutzeko, herritarrek www.azpeitia.net webgunera sartu daitezke.

100 urte bete ditu Josefa Odriozolak



Josefa Odriozola Cendoyak 100 urte bete zituen joan den martxoaren 20an. Urteurren berezia aprobetxatuz, Udalak omenaldi txikia eskaini nahi izan zion, Julian Eizmendi alkatearen eta Ana Mendizabal zinegotziaren eskutik. Josefak lore sorta handi bat eta egurrezko oroigarria jaso zituen. Josefa Azpeitiko Odria auzoko Basabe baserrikoa da, baina urte ugari Aragentinan bizi izandakoa da eta horregatik, oroigarrian Basabe baserria eta Aragentinako irudiak agertzen dira. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere lore sorta bat bidali zion. Zorionak Josefa!

Julian Barrentxearen kantoia




azpeitiko herriak Julian Barrenetxea hil zenaren 50. urteurrena eta bere izena daraman abesbatzaren 25. urteurrena gogoratuko ditu 2011ean eta horretarako, ekintza desberdinak izango dira urtean zehar. Horrela, apirilaren 2an, Parrokia aurretik Enparan kalera doan kantoiari bere izena jarri zitzaion. Julian Eizmendi alkateak plaka berria desestali zuen, jarraian Juan de Antxieta musika eskolako eta dantza solteko ikasleek aureskua dantzatu zuten eta Julian Barrenetxea eta Parrokiko abesbatzek “Agurra, Kantuz” eta “Agur Jauna” kantatu zituzten.

Bolatokia, txapelketarako prest



garmendipe futbol zelaiaren instalazioen borneyan, bolatokia egin da. Garai batean sokatirako taldeak erabiltzen zuen gunean eraiki da eta sarrera, Anexotik izango du. Bolatokia eraikitzeke lanek 39.000 euroko aurrekontua izan dute. Instalakuntza berriaren funtzionamenduari dagokionez, berriz, Udala finkatzen ari da dagoeneko. Kirol zerbitzu berria, beraz, Gipuzkoako XLII. Hiru Txirlo Bolo Txapelketarako prest egongo da. Izan ere, Gipuzkoako txapelketa maiatzaren 28an jokatu da Azpeitiko herrian, 12:30ean hasiko da lehiaketa eta bertan, herriko bi taldek hartuko dute parte.

Klima aldaketaren aurrean, ardura



azpeitiko Udal Ingurumen saila jasagarritasunaren alde hainbat pausu ematen ari da azken urteetan, honen adierazle, azken hilabeteen aurrera eraman duen lantokietara autobusez joateko kanpaina. “HERRITAREN ARDURA KLIMA ALDAKETAREN AURKA” Auzolan 21eko zerbitzu honen bidez, kontzientziatioko ekimen desberdinak egin dira eta autobuseko erabiltzaileen artean bizikleta baten zozketa egin da. Kanpaina amaitu bada ere, garraio publikoaren erabilera sustatzearen aldeko apustua egiten jarraituko duela ziurtatu du Udalak.

agenda

APIRILA

	1	2	3	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	



8, ostirala

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

KORRIKA KULTURALA

Korrika- 17 dokumentala

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 22:30

9, larunbata

HITZALDIA

Hizlaria: Miren de Miguel Lesaca

Gaia: Soledadeko Kaperaren
hegoaldeko hormako grisailen
ikerketak ikonografikoa.

Iturri grafikoak

Ordua: 12:00etan

Lekua: Soledadeko kaperan

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

CD AURKEZPEN

Imuntzo eta Beloki musika
eskolako ikasle eta irakasleen
laguntzarekin

Ordua: 19:30ean

Lekua: Sanagustin kulturgunea

DVD EMANALDIA

17:00etan, La montaña mágica

22:00etan, No controles

Lekua: Betharram Aretoa

10, igandea

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

DVD EMANALDIA

17:00etan, La montaña mágica

19:30ean, No controles

Lekua: Betharram Aretoa

11, astelehena

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

12, asteartea

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

13, asteazkena

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

KORRIKA TXIKIA

Margo tailerra eta txokolatada.

Ordutegia: 16:00etatik 16:45era

KORRIKA

Ordua: 18:30ean

14, osteguna

TOPAKETA

"Euskara herriaren arnasa"

Ordua: 9:00etan

Lekua: Sanagustin kulturgunea

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

HITZALDIA

"Ilustrazio garaia eta lehenengo
Karlismoa Azpeitian" Joseba Zuazo

Ordua: 19:00etan

Lekua: Sanagustin kulturgunea

15, ostirala

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

16, larunbata

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

DVD EMANALDIA

17:00etan, Pio Pio


22:00etan, Twelve

Lekua: Betharram Aretoa

ANARI-ren KONTZERTUA

Ordua: 22:30ean

Lekua: Sanagustin kulturgunea



17, igandea

KONTZERTUA

Udal Musika Banda

Ordua: 13:00etan

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

ARGAZKI ERAKUSKETA

Juan Antxieta 2011

Lekua: Sanagustin kulturgunea

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

DVD EMANALDIA

17:00etan, Pio Pio

19:30ean, Twelve

Lekua: Betharram Aretoa

18, astelehena

IPUIN KONTAKETA

"Mamuak eta bere bizilagun"

Ordua: 18:00etan

Lekua: Liburutegia

22, ostirala

DVD EMANALDIA

17:00etan, La isla de los recuerdos

Lekua: Betharram Aretoa

23, larunbata

DVD EMANALDIA

17:00etan, La isla de los recuerdos

Lekua: Betharram Aretoa

24, igandea

DVD EMANALDIA

17:00etan, Vivir para siempre

Lekua: Betharram Aretoa

25, astelehena

DVD EMANALDIA

17:00etan, Vivir para siempre

Lekua: Betharram Aretoa

26, asteartea

GAZTERIA SAILA

Oka jolasa eta Arropa Kustomizatu

Ordua: 10:00-13:00

ZAPO TXOKO

Futbito txapelketa

Ordua: 10:00-13:00

KLIK ART ERAKUSKETA

Kilometroak 2011

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

27, asteazkena

GAZTERIA SAILA

Sukaldaritza eta Bizikleta irteera

Ordua: 10:00-13:00

ZAPO TXOKO

Patata tortilla lehiaketa

Ordua: 10:00-13:00

KLIK ART ERAKUSKETA

Kilometroak 2011

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

28, osteguna

GAZTERIA SAILA

Txiki Park-era eta Txindokiko itzala

Ordua: 10:00-17:30

ZAPO TXOKO

Sabel dantza eta raketa saioa

Ordua: 10:00-13:00

KLIK ART ERAKUSKETA

Kilometroak 2011

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

29, ostirala

GAZTERIA SAILA

Altxorraren bila eta Sukaldaritza

Ordua: 10:00-13:00

ZAPO TXOKO

Txindokiko itzala

Ordua: 10:00-16:00

KLIK ART ERAKUSKETA

Kilometroak 2011

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

30, larunbata

KLIK ART ERAKUSKETA

Kilometroak 2011

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

DVD EMANALDIA

17:00etan, Los viajes de Gulliver

22:00etan, Carne de Neón

Lekua: Betharram Aretoa



Biohondakinak gaika jasotzeko ontzi marroia

Azpeitiko 660 familia baino
gehiago ari dira konpostaia
egiten 2008 urteaz geroztik.

**Ez zaitez atzean geratu,
hartu zuk ere parte!**

Informazio gehiago eskuratzeko,
deitu ezazu Urola Erdiko
Zerbitzu Mankomunitateko
943 85 73 19 telefono zenbakira.

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Apirilaren 11, 16, 17, 20 eta 29

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Apirilaren 1, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10 eta 19

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Apirilaren 2, 3, 14, 18 eta 26

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Apirilaren 15, 21, 22, 23, 24 eta 25

IACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Apirilaren 12, 13, 27 eta 28

